

U d a l
h a u t e z -
k u n d e a k
2 0 1 9

EGIZU
ZARAUTZEN
ERE BAI

GOVERNURAKO
PROGRAMA
SOZIALISTA
LEGEALDIA
2019-2023



Politika sozialak. Aurrerabidea eta askatasuna.

Zure laguntza beharrezkoa da bizikidetzaz hobea eta ekonomia biziagoa izango duen garai berrirako. Ilusioz lan egingo dugu zarauztarren mesedetan.

1. ENPLEGUA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA

Helburuak: Talde ahulenetan langabezia txikiagotzea: gazte, emakume, 52 urtetik gorakoak eta iraupen luzeko langabetuak. Bertako merkataritza enpresa txiki eta ertainei laguntzea.

1. Kontratazioa diruz lagunduko dugu talde ahulenei laguntzeko.
2. Enplegu-anezkek sortuko ditugu.
3. Enprendizajea bultzatuko dugu:
 - 3.1 Hutsik dauden pabilioi industrialak bideratu, "coworking" ereduari jarraitzen dioten enpresa berrietarako eskainiaz.
 - 3.2 Sortzen diren enpresa berrientzat laguntza ekonomikoak eman, lehen bi urteetan udal-tasak ezabatuz.
4. Turismo ekologikoa sustatuko dugu, ondasun eta garapen jasangarri iturri gisa:
 - 4.1. Eratzun berde-urdinaren bidez.
 - 4.2. Nekazaritza-turismo bidez.
5. Ekonomia zirkularrari lagunduko diogu.
6. Zarautzera enpresa berriak erakarriko ditugu.
 - 6.1. Abendano eta Errotaberri poligonoak bultzatuz.
 - 6.2. Ingurumenarekin begirunetsuak diren enpresak sustatuz.
7. Enpresa txiki eta ertainei modernizatzen lagunduko diegu eta emisioak nahiz kontsumo baliabideak (energia, ura...) gutxitzen.
8. Bertako merkataritza sustatuko dugu erdigune eta auzoetan.

2. ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA.

Helburua: Etxebizitza-Plan bat ezartzea, etxebizitza aitortutako eskubide subjektiboa dela abiapuntutzat hartuz. Gure lehentasun hauek dira:

1. Etxebizitza publikoa **alokairuan**.
 - 1.1. Salberdinen eraikuntza.
 - 1.2. Etxebizitza sozialeko parke publikoa handitzea.
 - 1.3. Gazteentzako alokairurako arreta berezia.
 - 1.4. Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programa sustatu, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko jabeentzat eta maizterrentzat bermeak emanez.
 - 1.5. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza legeak dituen baliabide guztiak erabiltzea hutsik dauden etxebizitza merkaturatu etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko.
2. Erakundeen arteko elkar-laguntza indartu luzarorako etxebizitza-politika garatzeko.

3. HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA KLIMA-ALDAKETA

Helburua: Zarautz klima-aldaketaren kontrako borrokaren herri aitzindari bihurtzea, jarduera zehatzekin, funtsean Eratzun Berde Urdinaren garapenaren bitartez.

Hirigintza. Hiri-antolamenduko plan orokorra ikuskatuko dugu, bertan ingurune-ikusmoldea txertatuz klima-aldaketa geldiarazteko erreminta bezala.

1. Salberdin: Legealdi honetan hasitako garapen urbanistikoa jarraituko dugu, ingurune-irizpideak txertatuz parke eta lorategi diseinuetan. Ume zein aniztasun funtzionaleko helduentzat elementuak txertatuak txertatuko ditugu (zabuak, gurpil-aulkidunentzat mahaiak, brailleko kartelak...)

2. Hegoalde: Salbardineko garapena amaitu bitartean ingurune hori duindu eta leheneratuko dugu, proiektu berriak dituzten zarautzar ekintzaileak sustatu eta lagunduz

3. Errotaberri: bere garapen urbanistikoa bultzatuko dugu, ibaia eta inguruko basoak mantendu eta errespetatuz.

4. Higikortasun iraunkorreko **plana landuko dugu**, honako hauek lehenetsiz:

4.1. Parte zaharra peatonalizatzen jarraitzea.

4.2. Garraio publikoa eta bizikleten erabilera segurua, auto sarbidea erdigunera murrizteko.

4.3. Hesi arkitektonikoak ezabatzea, espaloi guztiak irisgarri bilakatuz, bereziki Mendilauta eta Nafarroako ibilbideetakoak.

4.4. Zebra-bide guztiak ikusgai izatea, bereziki ikastetxeetatik hurbilekoak, eta aparkatze desegokiak kontrolatuz espaloi eta pasagunetan.

4.5. Oinezkoentzako pasaguneak goratzea, inpaktu akustikorik sortuko ez dutenak diseinatuz.

4.6. Asfaltatze plana, aldian behingo mantenuarekin zulorik ez sortzeko.

4.7. Araba kalean bidegorri-sarea osatzea.

4.8. Oinezko eta bizikletentzat mugikortasuna segurua izan dadin neurriak hartzea.

4.9. Mitxelena Kanean trenbide azpian lurpeko pasabide bat egitea.

4.10. Neguan erabilera anitzak izango dituen lur-azaleko disuasio-aparkalekua egitea.

4.11. Salbiden lur azpiko aparkaleku baten bideragarritasuna aztertzea.

4.12. Brigadak gaur egun duen biltegian autobus geltokia sortzea.

4.13. Bariantea egin dadin lana egingo dugu, erdigunetik trafikoa murrizteko.

4.14. Erdigunetik urrun dauden guneentzat sarbideak aztertu eta hobetuko ditugu, ahal denean errepideak zabalduz eta ezin denean, zentzu bakarreko ibilbideak ezarriz.

5. Parkeak hobetzea:

5.1. Haur-parkeetan aniztasun funtzionala duten pertsonentzat bitartekoak jarritz.

5.2. Parkeetan gurpil-aulkietako pertsonentzat moldatutako mahaiak.

5.3. Parke bat estaliko dugu Zarautzeko auzo bakoitzean, Salbiden egin genuen bezala.

4. INGURUMENA ETA KLIMA-ALDAKETA

1. Eratzun Berde Urdinaren garapenarekin jarraituko dugu, gure ingurune naturalak zainduz.
 - 1.1. ingurune-zainketako eta Eratzunaren mantenuko zereginak egiteko enpresa bat kontratatuz.
 - 1.2 Eratzunaren gune interesgarriak handituz, besteak-beste, honako gune hauekin: Olaa erreka Errotaberri inguruan, Iñurritza erreka Abendaño atzealdean, harrobia eta Urteta inguruak eta Pagoetako parke inguruak.
 - 1.3. Eguzki izar-eko gunea mantenduko dugu korridore ekologiko gisa, Biotopoaren eta hezeguneen arteko loturarekin jarraituz.
 - 1.4. Asti eta Iritako hezeguneak babestuko ditugu, biotopo barnean sartzea eskatuz eta ibilbide ekologikoak sortuz.
2. Garbigunea handituko dugu.
3. Paperontziak jarriko ditugu araztegiraino doan biotopoko bidean.
4. Hondakinak jasotzeko eduki-ontziak hobetuko ditugu, eskuragarriago eginaz.
5. Plastikoa murrizteko kanpainarekin jarraituko dugu.
6. Ontzi arinak biltzeko makina bat jarriko dugu Zarautzen.
7. Kutsadura akustikoa gutxitzeko neurriak hartuko ditugu:
 - 7.1. Kale-garbiketa eta hondakin-bilketa ordutegiak aldatuko ditugu atsedean orduak ez dezaten oztopatu.
 - 7.2. Terrazetako ordutegiak doitu.
 - 7.3. Herri lasaia izan dadin neurriak hartuko ditugu atsedena eta aisia bateragarri eginaz.
 - 7.4. Diputazioari honako eskaerak eginaz: autobidean taula akustikoak, abiadura 80 km/h murriztea eta asfaltoaren aldaketa.
8. Ingurumen-sentsibilizazioa sustatuko dugu:
 - 8.1. Udal-Lore eskola sortuz.
 - 8.2. Udal-baratzeak optimizatuz.
 - 8.3. "Arboreto-a" sortuz zuhaitz-mintegi gisa.
 - 8.4. EBU (Eratzun Berde Urdina) Kluba bultzatu.
 - 8.5. Irteera gidatuekin jarraitu, eratzuneko guneak ikustatzeko.
9. Euskadin egiten diren Klima Aldaketaren aurkako ekintzetan parte hartuko dugu hiri-erresilientzia sendotzeko, beteak beste, malekoiaren azpiegituren estudio bat eginez balizko olatuen indartzera egokitzeke.
10. Energia berriztagarriak bultzako ditugu.
11. Bidezko Merkataritza garatu eta bultzatzeko lan egingo dugu.
12. Erosketak egiterakoan irizpide etiko eta berdeak sartuko ditugu Udalean.
13. Merkataritzarako urteroko saria sortu, enpresa jasangarri eta ingurumena zaintzeko ahalegina egiten dutenak aitortzeko.
14. Elikagaien xahuketa ekiditeko neurriak hartuko ditugu, hala nola, jatetxeetan ontzi biodegradagarriak banatu, janari soberakinak etxera eramateko.
15. Udal-ibilgailuen ordezkatzeko plan mailakatua egingo dugu hibrido edo/eta elektrikoak sartuz.
16. Sustituiremos paulatinamente el alumbrado actual por bajo consumo, reforzando la iluminación en los pasos de peatones si fuera necesario. Impulsaremos el uso de vasos retornables en las fiestas, a semejanza de lo que se hace en la feria de la cerveza, evitando residuos que generan los vasos de plástico.

5. MASKOTAK

1. Txakur-parke gehiago egingo ditugu bertan segurtasunez askatu ahal izateko, baldintza egokietan auzo guztietan eskuragarri izango direnak.
2. Animalia-edukitze ordenantza eguneratuko dugu maskoten ongizatea ere kontuan hartuko duena. Sentibilizazio-kanpainak abiaraziko ditugu eta araua betetzen ez dutenentzat isunak jarriaz.
3. Animaliak jaso eta ondoren adoptatzeko Elkartearen sorrera sustatuko dugu, baita ere kaletar katuak esterilizatorako.

6. HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA AUZOAK

Helburua: Udalaren hiritar guztienganako hurbiltasuna sustatzea, fisikoki hirigunetik urrutien daudenekin sentikortasun berezia izanez.

1. Aurrekontu parte-hartzaileak hiritarrek zertan inbertitu erabakitzen dutenerako partida ekonomikoa jarritz.
2. Herritarren aldi behingo bilerak egingo ditugu Parte-hartze Departamentu eta auzo-elkarteen artean. Elkarte eta harreman era berriak sustatuko ditugu, bereziki erdigunetik urrutien daudenekin: Urteta, Hiruerreketa, baserriak...
3. Elkarreentzako partida ekonomikoa handituko diegu beraien beharrei erantzuteko.
4. Auzoetan jarduerak bultzatuko ditugu.
5. Auzoen behar zehatzetan parte hartuko dugu, bere eskariei arreta ipiniz:
 - 5.1. Alfa parkean jolas berriak.
 - 5.2. Orokietan ondoko futbol pistaren hobekuntza.
 - 5.3. Itxasmendiko auzo elkartearen lokaleko isolamendu akustikoa.
 - 5.4. Mitxelena kaleko lokala berritzea.
 - 5.5. Mitxelenan trenbide azpiko pasagunea egingo dugu.
 - 5.6. Vista Alegreko parkea inguratzen duen harresiaren konponketa.
 - 5.7. Vista Alegreko irisgarritasun plana aurrera eramango dugu.
 - 5.8. Vista Alegreko lokalean barne hobekuntzak.
 - 5.9. Hiruerreketa auzoan sarbideak hobetuko ditugu.
6. Udala modernizatzen jarraituko dugu, ahal diren baliabide telematiko guztiak erabiliz hiritarren tramiteak errazteko.
7. Mugikor-aplikazio bat sortuko dugu hiritarrak udalarekin zuzenean konektatzeko eta informazio guztia eguneratua izan ahal izateko.

7. GIZARTE-ZERBITZUAK

Helburua: Zarautzen hiritarren ongizatea ziurtatzea, solidaritatea eta integrazioa sustatu.

- 1.1. Familientzako laguntza programak areagotzea adin handikoak etxean zainduak izan daitezen.

- 1.2. Programa espezifikoak martxan jarriko ditugu estimulazio kognitiboa bultzatzeko eta adin handikoek ariketak egin ditzaten, bai asistentziatzko zentrotan, bai etxeetan.
- 1.3. Baliabide gutxi duten familientzako laguntza ekonomikoekin jarraitzea, energiarako, udal-tasetarako, zorretarako, eskola-gastuetarako, etab.
- 1.4. Etxelaguntza Zerbitzua zabaltzea gurasobakarreko familietako adin txikikoak eta errekurtsu gutxi dituztenak zaintzeko.
- 1.5. Etxean aniztasun funtzionaleko pertsonak dituztenentzat laguntza espezifikoak bultzatu eta handitzea.
- 1.6. Haurreskolaren kuotak ordaintzeko familientzat laguntzak sortzea.
- 1.7. Adin txikikoei tratu egokia sustatzeko kanpaina espezifikoak. Guraso-eskola.
2. Asoziazionismoa eta solidaritatea sustatzea. Baratze solidarioa eta elikagai-bankuarekin kolaborazioa bultzatzen jarraitzea.
3. "Zarautz tratu onagatik" kanpainarekin jarraitzea, bereziki talde ahulenetan eraginez.
4. Zarautzen baztertzeko arriskua dutenentzat babestutako etxebizitzaren proiektuarekin jarraitu eta handitzea eta beraien gizarteratzea laguntzea.
5. Etxegabeentzat urte guztirako aterpetzea proposatzen dugu, eskualdeko udal guztiek elkarrekin kudeatuko dutena.
6. Drogen prebentzioko politikari lehentasuna ematea, eta oro har menpekotasunak. Bultzada bat eman Udaletxe guztian transbertsalitatea sustatuz.
7. Faktore honengatik baztertzeko sozialaren arriskua gutxitzeko trebetasun sozialak prebentziotik lantzea.
8. Arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako udal-planak bultzatuko ditugu.
9. Apustu eta zorizko jokoetako lokalak eta beraien jarduerak arautuko ditugu Zarautzen jarduera horiek saihesteko, baita ere adingabeen parte hartzea bultzatzea dezaketen beste jarduera mota batzuk.

8. BERDINTASUNA

Helburua: Gure helburua berdintasuna bultzatzea da eta emakumeenganazko bortizkeriarekin bukatzea, departamentuak orain arte egindako lanari jarraituz.

1. Bortizkeria matxistaren aurkako gure jarrera argi uzteko, Zarauzko sarreretan kartelak jarriko ditugu: Emakumeen kontrako indarkeriari ez / Bortizkeriara matxistarik ez
2. Emakumearen Etxea garatu Zarauzko emakumeen parte hartzearekin. Espazio hau Zarauzko emakume guztientzat topagune izango da eta berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako bortizkeriaren kontrako programa eta jarduera guztiak kontzentratuko dituena. Emakumeen parte-hartzea indartzea eta asoziazionismoa sustatzea ahalbideratuko.
3. Asistentzia juridiko zerbitzua abiaraziko dugu.
4. Tratu txarrak izandako emakume biktimetzako eta gurasobakarreko familientzat diru-laguntza espezifikoak sortzea.
5. Berdintasuna lortzeko lan egiten duten emakumeen elkarten sorrera bultzatzea eta bortizkeria sexistarekin bukatzea.
6. Tratu txarrak sufritu dituzten emakumeentzat elkarten sorrera bultzatzea.
7. LGTB talderako eta aniztasunarekiko errespeturako arreta berezia.
8. Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio kanpaineekin jarraitzea. Gizonak berdintasunaren aldeko lanean konprometitzeko kanpaina espezifikoak.
9. Etxe laguntza zerbitzua familiei zabaltzea, bereziki gurasobakarreko familiei.

10. Emakumeen aisialdi-jardueretan parte-hartzea errazteko haurtzaindegi-zerbitzuak sortzea.
11. Emakume zarauztarrek egindako ekimen eta jarduerak sustatu eta ikustaraztea.
12. Berdintasuna eta tratu onen aldeko kanpainak gazteei zuzendu eta bultzatzea.
13. Berdintasuneko ordenantzarekin hasitako lanarekin jarraituko dugu, udal lanarentzat eta gizartearentzat berekin dakarren guztiarekin.
14. Udal-kontratu guztietan berdintasun-klausulak sartuko ditugu eta baldintza laboral duinak ziurtatuko ditugu langile guztientzat, baita ere udalaren azpikontrata guztietan gizona eta emakumeen artean berdintasunezkoak direla ziurtatu.
15. Taxi-bus zerbitzuarekin jarraitu eta emakumeenganazko erasoak aurrez ikusteko EraStop aplikazioa baliabide gisa hedatzea.

9. GAZTERIA

Helburua: Gure helburua prestakuntza, aisia eta kirol osasungarria bultzatzea da.

1. Zarauzko enpresen eta ikastetxe nahiz Unibertsitate arteko hitzarmenak bultzako ditugu praktiketarako eta gazteak lan munduan sartzeko.
2. Gazteek zuzendutako sormen artistiko eta kultureko proiektuak bultzatzea. Gazteek sormena eta berrikuntzarako gaitasun handia dute eta indar hori bultzatu egin behar dugu.
3. Gazte ekintzaileek bere enpresa-proiektuak gara ditzaten coworking moduko espazioak eskainiko ditugu.
4. Gazteen lokalak doitu eta baldintza egokitan erabil ditzaten ordenantza bat egingo dugu.
5. Gaztelekuaren kudeaketa optimizatuko dugu gazteei jarduera eta ikastaro gehiago eskaintzeko.
6. Departamentu desberdinen artean elkar lana bultzako dugu (Hezkuntza eta Gizarte zerbitzuak), gazteei zuzendutako programak optimizatuz, hala nola, Kale-hezitzaileak.
7. Nerabeen kiroleko jarduera sustatuko dugu, neskena bereziki.
8. Eratzun Berde Urdinaren inguruan aisialdia eta ingurumenarekin erlazionaturako kirol eta jarduerak antolatuko ditugu.

10. TURISMOA

Objektiboa: Ingurumenarekin begirunetsua izango den Turismo jasangarria sustatzea.

1. Turismo ekologikoa sustatuko dugu Eratzun berde-urdinean gidatutako bisitak eta hainbat jarduera eginaz.
2. Turismo begirunetsua eta familiako erakarri nahi ditugu funtsean gau-aisia sustatzen duten eredu turistikoari ihes eginez.
4. Landa-turismoa sustatuko dugu turismo ekologikoa hiritarren jarduera bultzatzeko.

11. KIROLAK

Helburua: Zarauztar talde guztiei kirola egitea ahalbideratu eta sustatu.

1. Astiko kirol-gunea optimizatuko dugu aisia osasungarri eta kirol-gune moduan.
2. Abendañon kirolerako espazioak eta instalazio berriak sortuko ditugu, bereziki atletismorako instalazioak.
3. Eratzun Berde-urdinean aisialdi eta kirol jarduerak bultzako ditugu.
4. Emakumezkoen kirola bultzako dugu, merezi duen protagonismoa emanez.
5. Eratzun Berde Urdineko gune desberdinetan kanpoko kirola egiteko makinak jarriko ditugu.
6. Kiroldegiko irekitze ordutegiak handituko ditugu.
7. Azken Portuko toka instalazioak hobetuko ditugu.
8. Orokietako komunak eta aldagelak irekiko ditugu entrenamenduetan erabil daitezten.

12. KULTURA, HEZIKETA, EUSKARA

Helburua: Hezkuntza-, kultura- eta hizkuntza-baliabideak eskuragarri jartzea.

1. Herri-eskola bere mantenurako behar dituen baliabideez hornituko dugu, bai Haur-eskolan eta bai Orokietan.
2. Hezkuntza-programak garatzen jarraituko dugu eta prebentziokoak indartuko ditugu Gizarte-zerbitzuekin elkar-lanean.
3. Guraso-eskolak bultzatuko ditugu ikastetxe bakoitzean, Adimen emozionalaren printzipioen ikuspegia kontuan hartuz.
4. Akademiko hutsa baino ikuspegi zabalagoetik ikusten dugu Udaleko Hezkuntza eskumena, beraz Hiri-Hezitzaileen proiektua bultzako dugu, kontzeptu hau udal-jarduera guztietara hedatuz.
5. Inposatzerik gabeko elebitasuna bultzatuko dugu eta UEMAn parte-hartzea utziko dugu.
6. Udalak sustatutako Erlo telebistako programetan gaztelaniazko azpitoluak eta informazio elebidunak bultzako ditugu.
7. Sanz Eneak osotasunean liburutegi funtzioa izan dezan Musika eskola eta Villa Munda berrantolatuko ditugu, ordutegiak handituz.
8. Zarautz Zinemaldian, Musika-Hamabostaldian eta Jazzaldian sartuko dugu.
9. Udako ikastaroren bat Zarautzen egin dadin, EHUrekin akordioa bultzako dugu.
10. Kontzertu, antzerki eta beste hainbat jardueraren bidez kultura ekintzak handituko ditugu, Modeloren eskaintza dibertsifikatuz.
11. Azpiegitura kulturalak handitzeko gure ahalegin guztia jarriko dugu.
 - 11.1. Horretarako Salbardin Polikultural bat eraikitzea sustatuko dugu, aurrekoaren handikeriarik gabe eta gure herriaren behar eta aukerei egokitutakoa.
 - 11.2. Zarauzko elizekin kolaborazioa bilatuko dugu musika klasikoko agertokiak izateko
 - 11.3. Musika eskolako ospakizun aretoa handituko dugu musika eta antzerki emanaldietarako.
 - 11.4. Santa Clara komentua erosteko adostasunera iristen saiatuko gara.
 - 11.5. Egungo musikako kontzertuentzat kokapen berriak bilatuko ditugu Hegoalden.

13. HERRITARREN SEGURTASUNA

Helburua: Herritarren segurtasuna indartzea, bereziki prebentzioa azpimarratuz.

1. Sentsibilizazio kanpainak egitea, eta beharrezkoa denean zigorrak jartzea, honako kontuetan: zakurrak, kaleetako garbiketa, okerreko aparkatzeak, zarata, bandalismoa...
2. Udaltzaingoaren polizia-etxearen lekualdaketa egitea eta lanerako behar dituzten baliabideak hornitzea.
3. Ertzaintzarekiko kolaborazioa indartzea taberna ingurutan sortzen diren gaueko liskarrei aurre egiteko. Gune gatazkatsuenetan argiztapena handitzea.
4. Erasoen aurkako prebentzio kanpainak egin, bereziki gazteen artekoak. Hasiera batean emakumeentzat pentsatutako taxi-bus eta EraStop aplikazio zerbitzuak herritar guztiei zabaltzea.
5. Adin txikikoei alkohol-salmenta saihesteko kanpaina espezifikoak.
6. Ikastetxeetako bide-heziketa kanpainak hiritar guztiengana hedatuko ditugu bizikleta istripuak saihesteko.
7. Hiriko puntu beltzak saihesteko argi-intentsitatea handituko dugu herriko inguru ilunetan.



BIZIKIDETZA
CONVI
VENCIA



BIZIKIDETZA



Udal-bizikidetza plana

Bizikidetasuna espazio berean giza talde ezberdinak era baketsu eta harmoniatsuan batera existitzearekin lotutako kontzeptua da. Hots, inork bere giza eskubideak hautsita ez ditzala ikus.

Urte askotan Zarauztarrok giza eskubideen bortxaketa sistematikoa jasan dugu, bere adierazpen txarrean gainera, hilketan. Biktimek gizartearekin duten bizikidetza lotura hautsita ikusten dute izandako baztertze sozialagatik eta gizarteko kideen parte-hartze zuzena edo laguntzaileagatik.

Gainera, 50 urtetan ETAk gizartea ikaratu egin du eta honek askatasun-galera nabari bat eragin du. Bizikidetasuna eskuratzeko, lehenik eta nahitaez, norbere ideiak askatasunez adierazteko eskubidea berreskuratu behar da.

“Nire senarraren hilketaren ondoren gizarte-hutsune handia bizi nuen

Koro Arrieta Arrillaga, Jose Martínez Parens-en alarguna

Biktima eta gizartearen arteko lotura berreskuratu behar da. Eta gizarteak, bere erakundeen bidez ere, ahaleginak egin behar ditu egindako kalteak konpontzeko. Biktimei ezin zaie ezer eskatu ezen bizikidetza eredu izan baitira mendekuari uko eginez: justizia eskatu dute.

“Ez dugu inoiz ahaztu behar terrorismoaren biktimekin bidegabekeri egoera iraunkor bat dagoela, inoiz konponduko ezin zaigun zerbait galdu dugulako.”

Iñaki García Aguirrezabalaga

Hilketa konponezina da, baina erreparatze, egia eta justiziako ekintza ugari egin behar dira. Lehena eta beharrezkoena terrorismoari legitimazioa kentzea da.

Beraz, Giza-Eskubideen urraketan biktimak izango dira bizikidetza taldearen lanak orintatuko dituztenak. Beste ikuspuntutik ezin da onartu.

Gizarteari begira ere lana egin behar da, oraindik Euskadin libreki iritzia emateko dagoen beldurra galdu dadin. Demokrazian Giza Eskubideekin begirunetsua den edozein ideia libreki adierazi eta defendatzea, mehatxu arriskurik izan gabe, posible denaren kontzeptua aurrera eramatea beharrezkoa da.

01- BEREIZITAKO JARDUERA EREMUAK

Argi eta garbi bereizitako bi jarduera-eremu ikusten ditugu:

Talde terroristek Zarautzen, edo zarauztarren artean, eragindako biktimak. Bereziki ETArenek, gehien iraun duena izan delako, Zarautzen biktima gehien sortu dituelako eta zarauztar batzuek adoretu eta defendatu dutelako, zeinak jarrera hau aldatu behar baitute. Bere eragin guztiak ere

kontuan izan behar dira, zuzenak eta zeharkakoak, izan ere, hilketak eragitea ez ezik bestelako kalteak sortu baititu, hala nola, zaurituak, mehatxatuak, jazarri izandakoak eta erbesteratuak.

Estatu-kolpe frankistaren biktimak, gerra ondorengo eta diktadurarenak. Frankismoaren biktimen erreparatzea bi arrazoiengatik egin behar da: bidezkoa delako eta sistema ez demokratikoak deslegitimatzeke.

Bi eremu hauek bereiztea funtsezkoa iruditzen zaigu terrorismoaren justifikazioak saihesteko.

02- ABIAPUNTU PRINTZIBIOAK

Gure abiapuntu printzipioak hauek dira:

Giza Eskubideen onarpen eta defentsa: Zehazki:

- Bizitzarako eskubidea gainerako eskubideen oinarria da eta, beraz, indarkeria eta terrorismoa argi eta garbi gaitzestea.
- Giza duintasunerako eskubidea, beraz, tortura argi eta garbi gaitzestea, datorren tokitik datorrela.
- Giza Eskubideak babestuko dituen legezko sistema sozial eta politiko baterako eskubidea eta, beraz, estatu kolpe frankista eta ondorengo oinarritzko eskubide urrats guztiak gaitzestea.
- Norbanakoen adierazpen askatasuna gure gizarte plurala osatzen dutenen eskubide utziezin gisa.

03- LANERAKO ILDOAK

Printzipio hauetatik abiatuz honako ildo edo areak lantzea hartzen ditugu oinarritzotzat

03.1 Terrorismoari buruz:

- Beharrezkoa da euskal parlamentuak 2013an onartutako **lurzoru etikoa** onartzea. Giza Eskubide eta balore demokratikoak babesteko oinarritzko lurzoru etikoa; bortizkeriaren bidegabekeria, egindako kaltea eta biktimen duintasuna onartzea. Honako hau oinarritzko konpromiso gisa hartzen duena: Euskadik azken urteotan jasandako bortizkeria errepikatuko ez dela bermatzea eta etika eta giza eskubideen ginetik inongo kausa politikorik ez jartzea. Ardurazko oinarritzko printzipio bat finkatzea ere babesten du: iraganeko giza eskubideetako urraketa oro zehaztu eta aitortzea. Horrez gain, egi osoa izango duen eta neutrala izango ez den memoria bat eratzea.
- 2011ko **Terrorismoak Eragindako Biktimak Aitortu Osoko eta Babesa emateko legeak** eta **Terrorismoaren Biktimen Eskubideen Europako Kartak** terrorismoaren biktimen aitortza eta erreparatzearen oinarriak ezartzen dituzte eta horregatik aintzat hartu behar dira.
- **Terrorismoari zilegitasuna kentzea**, atentatuek izan zezaketen edozein kausalitate, salbuespen-egoera edo gatazkak eman ziezaiokeen zioa ukatuz.
- **Terrorismoaren biktima guztiak onartzea** era aktibo eta publikoan. Biktima guztiak, izan ere, biktimak ez baitira eraildakoak bakarrik izan. Honakoak ere izan dira: atentatu baten ondoren bizitza salbatu dutenak, heriotza-mehatxua jasan dutenak, jazarpena jasan

duinak eta erbesteratu behar izan dutenak.

- **Memoria**, gure herrian emandako eskubide urratzei mugatuko den ikerketa historikoa eginaz. Giza Eskubideen urratze forma guztiak: erailketa guztiak, burutu gabeak barne, herritarrak ikaratzeko egindako atentatuak, jazarpen bortizkeria, oro har, espazio publikoan egindako pintaden bidez burututako mehatxuak, e. a.
- **Erreparatzea**, Zarauzko biktima bakoitzari zuzendutako neurri zehatzak ezarriz.
- **Justizia**, Zarauzko udaletik izan daitezken mekanismo bideragarriak ezarriz.
- Norbanakoen **berrikuste autokritikoa**, terrorismoa hain era kaltegarrian eta hainbeste denbora irautea posible izan bada, gutxi batzuen kolaborazio aktiboa eta beste batzuen pasibotasunagatik izan da. Urte gogorrenetan giza eskubideen defentsaren ia ahots bakarrak terrorismoaren biktimena eta gizabidezko elkarreana izan dira. Horiek lortu dute gehiengo sozialak terrorismoa esplizituki arbuiatzea, zeinak ETaren porrotera eraman baitu. Gizarte guztia izan da gradu ezberdinetan ETaren mehatxuaren biktima, baina guztiok ez dugu lagundu bere iraupenean. Bakoitzak bere erantzukizuna autokritika eginaz onartu behar du. Hau da biderik onena terrorismoa berriro errepika ez dadin.
- Nazioarteko terrorismoak zuzenean jo gintuen 2007an Maggi Alvarez eta Mikel Esseryren hilketekin. ETaren terrorismoarekin lortu dugun esperientziak biktima hauen beharrekiko sentiberak egin behar gaitu eta erne egon behar dugu justifikazioa eta doktrinamendua bilatzen dituzten portaeren aurrean.

03.2 Estatu-kolpeari eta diktadura frankistari buruz:

- Zarauzko biktimak zorrotasun historikotik **identifikatzea**.
- Diktaturaren biktimak **Memoria Historikoaren Legearen** bidez erreparatzea Udalaren inplikazioarekin. Lege honek frankismoaren biktimen aitortza eta erreparatzea, memoriaren iraupena eta, besteak beste, frankismoaren sinboloen desagertzea ezartzen ditu.

03.3 Giza Eskubideen beste urraketei buruz

- Giza Eskubide Adierazpenak bizikidetasunaren oinarriak ezartzen ditu. Bere hedapen, ezagutza eta defentsak lehentasuna izan behar dute.
- Legeria da gizarteek bere bizikidetasuna zuzentzeko ezartzen duen tresna, Giza Eskubide Adierazpenak hala onartzen duen moduan. Politika librea bizikidetzara arau berrietara egokitzea ahalbideratzen duena da. Beraz, legeriaren onartze kritikoa funtsezkoa da bizikidetasunerako.

03.4 Normalizazio sozial eta politikoari buruz:

- Ez dira baimenduko ez pankartak, ez pintadak, ez kartel mehatxatzaileak, ez preso nahiz ETako preso ohien omenaldiak; tratatu txarren egileei, bortxatzaileei edo frankismoari babestea baimenduko ez genukeen moduan.
- Gure herrian ETak urratutako adierazpen-askatasuna berreskuratzeko lan egitea. Adierazpen-askatasuna intolerantzia bortitzaren lehen biktima da beti.

04- JARDUERA ZEHATZAK:

Hurrengo jarduerazehatzak proposatzen ditugu:

- Zarautzen egin diren atentatu terroristak guztiak argitzea, oraindik horrelakorik balego, eta beharrezkoa izanez gero, ebatzi gabe leudekeenak Justizia administrazioari ikerketak berriro zabal ditzan eskatu.
- Memoriaren erakunde politika ofiziala garatzea gutxienez honako jarduera hauekin:
 - Terrorismoaren biktimak onartzea eta Zarautzen nahiz zarauztarren kontra egindako atentatu guztiak gaitzestea.
 - Abenduaren 10eko, Martxoaren 11ko eta Azaroaren 10eko oroitzapen ekitaldi guztiak instituzionalizatzea. Zehazki, Arrosadi parkeko lore-eskaintza 2007tik burutu den moduan.
 - Gertatutako bizitzarako eskubidearen urraketa kasu guztien deskribapenak jasotzeko ikerketa historiko lana egitea, lehen pertsona kontatutako biktimen bizipenak sartuz. Eredu moduan honako liburua har daiteke:

DUINTASUNAK HITZ EGITEN DU, BIKTIMEK HITZ EGITEN DUTE. TERRORISMOAREN IZUGARRIKERIA PAIRATU DUTENEN LEHEN PERTSONAKO LEKUKOTASUNA.

Egileak: Pérez-a Kepa, Señaris-a Lidia.
 - Gainerako oinarrizko eskubide urraketa guztientzat ere gauza bera.
 - ETak 50 urtetan urratutako adierazpen-askatasuna berreskuratzeko jarduera zehatzak diseinatzea.

04.1 Memoriaren presentzia espazio publikoan bermatzea:

- Arrosadiko parkea, Memoriaren Lorategi gisa ezartzea. Bertan oroitzapen plaka bat jartzea Zarautzen izandako terrorismoaren biktima guztien izenekin eta “Inoiz gehiago” testu argitzailea izango duena (edo adostutako antzekoren bat).
- Frankismoaren biktimak oroitzeko ere beste leku bat ezartzea, guztien izenak izango dituen.
- Atentatuak gertatu ziren toki zehatzetan oroitzapenezko plaketak jartzea honako datu hauekin: data, biktimen izenak eta kaltea eragin zuen talde terroristaren izena (ETA, GAL, BVE, AAA). Atentatua Zarautzik kanpo gertatuko kasuetan, dagokion udalari plaka jartzeko eskatu.
- Herriko plaza edo kaleren bati biktimaren baten izena ematea. Adibidez, Aldapetako urbanizazio berrian kale bati “María Josefa García” izena jartzea, ETak hildako lehen emakume polizia. 23 urte zituelarik 1981en Vista Alegren hil zuten Polizia Nazionaleko emakumezko lehen promozioa kidea.
- Donostiako udalari “Bakearen milla” erakusketa eskatzea Malekoian jartzeko.

04.2 Memoria politika aktiboa bultzatzea:

- Bortizkeria politikoak eragindako zarauztar biktimen lekukotasunak jaso, dokumentatu eta artxibatzea (batzordean proposatu den moduan).
- Ikasgeletan terrorismoaren biktimak parte hartzen dutelarik hezkuntza-programa bereziak sustatzea, beste hainbat herritan egin den moduan. (Programa horiek Zarautzen ere aplikatzea).
- Gai honen inguruan Zarautzen izandako gertaerei buruzko ikerketa-lan zehatz bat egitea, historialari adituak zuzendutakoa. Aipaturiko lanaren emaitzak zabaltzea.
- Erreportajeak eta terrorismoarekin erlacionatutako dokumentalak ematea (adibidez, “Asesinato en febrero”), legitimitatea kentzeko erakusketak antolatzea (adibidez, “Momentuan, tokia).

- Maila pertsonalago eta pribatuan, atentatueta izandako biktimen lekukotasun eta bizipen pertsonalak jasotzea memoria gordetzeko.